



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

Leire Bazterrika Loiarte.
Francisco Michelena Celayeta.
Imanol Baleztena Elizalde.
Ezekiel Loiarte Santesteban.
Martxel Elizalde Elizalde.
Pedro Hilario Santesteban Loyarte.

2019eko uztailaren 4ean, 20:00etan, ohiko biltzarrean elkartzen dira Zubietako Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. Ernesto Dominguez Olea —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Beñat Ripodas Beroiz. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. AURREKO BILKURAKO AKTA ONETSI.

Udalburuak galdetu du zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dion deialdiarekin batera banatu zen aurreko Bilkurako aktari. Francisco Michelenak, aurreko urteetan bertaratutako zinegotzieren zerrendak udal taldearen ordena errespetatzen zuela aipatu du. Akta, aipatutako aldaketarekin onartu da.

2. BILEREN ALDIZKOTASUNA.

Ohiko bilkurak egiteko aldizkotasunari buruz eztabaidatu da eta aho batez erabaki da bi hilabetetik egitea, hilabete bakoitietan, lehendabiziko hamabostaldian.

3. KOMISIOAK.

Aipatzen diren gaietaz arduratuko diren zinegotziak izendatu dituzte aho batez:

Mendiak eta herrilantako langileak: Ezekiel Loiarte Santesteban.
Francisco Michelena Celayetak eta Martxel Elizalde Elizalde lagunduko dute.

Hirigintza: Francisco Michelena Celayeta.

Kultura eta bestak: Leire Bazterrika Loiarte. Imanol Baleztena Elizalde lagunduko dio.

Auzolanak: Francisco Michelena Celayeta eta Ezekiel Loiarte Santesteban.

Alkateak adierazi du gai bakoitzarentzat izendatu dela zinegotzi arduradun bat, eta zinegotzi horrek izango duela lana egiteko askatasuna. Dena den, taldeko lana egitea da helburu nagusia.

4. ORDEZKAPENAK.

Ondoren, Zubietako Udala ordezkaturako duten zinegotziak izendatu dira aho batez:

Malerreko Mankomunitatea:

Ordezkarria: Ernesto Dominguez Olea.

Ordezkoa: Leire Bazterrika Loiarte.



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

Goi ur-hornidura kudeatzeko Erakunde Autonomoa (Malerrekako Mankomunitatea):

Ordezkarria: Ernesto Dominguez Olea.
Ordezkoa: Pedro Hilario Santestean Loyarte.

Cederna-Garalur, Malerrekako Agenda 21 eta Baztan-Bidasoa Eskualdean turismoaren garapena:

Ordezkarria: Ernesto Dominguez Olea.
Ordezkoa: Leire Bazterrika Loiarte.

5. ALKATEORDEZKOA.

Alkateak Leire Bazterrika Loiarte izendatu du alkateorde.

6. ALKATE ETA ZINEGOTZEIN ORDAINSARIAK.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 75. artikuluan ezarritakoari jarraikiz eta toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributueta parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banaketa 2018eko eta 2019ko aurrekontu-ekitaldietarako ezartzen dituen 18/2017 Foru Legearen 13. artikulua kontutan hartuz, aho batez **erabaki da:**

1. Alkatearendako urtean 8.668,68 euroko kalte-ordaina edo ordaina ezartzea, karguaren betebeharrak betetzeko, hau da: Herriko Etxera joateagatik eta osoko bilkuretan, organo kolegiatuen bilkuretan eta bileretan parte hartzeagatik. Diru kopuru horri PFEZko atxikipena ezarriko zaio.

2. Zinegotziendako urtean 1.444,78 euroko kalte-ordaina edo ordaina ezartzea, karguaren betebeharrak betetzeko, hau da: osoko bilkuretan eta organo kolegiatuen bilkuretan parte hartzeagatik. Diru kopuru horri PFEZko atxikipena ezarriko zaio.

3. Zenbateko horiek eguneratuz joango dira, Nafarroako Gobernuak Udaleko kideen gastuetarako ematen duen diru-laguntza handitu ahalean.

4. Orobat, beren karguan aritzean dieta eta joan-etorriengatik sortzen diren gastuak ordainduko zaizkie Udalbatzako kideei, horiek frogatu eta behar diren ordainagiriak aurkeztu ondoan.

5. Erabaki honek atzera eragina izanen du, 2019eko maiatzaren 26tik aitzina.

6. Erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Iragarki-taulan argitaratzea.

7. BAKE EPAILEAK IZENDATZEA.



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

Bake epailearen eta bere ordezkoren karguak Iragarki Oholean eta NAO-n argitaratu ondoren, 15 eguneko epea eman zitzaien interesdunei haien buruak aurkezteko. Ikusita inork ez duela izenik eman eta oraingo bake epailea eta bere ordezkoa prest daudela jarraitzeko. Udalburuak bozkatzera deitu du:

Udalbatzak aho batez hurrengo **erabaki du:**

1. José Miguel Aranguren Arbelaiz bake epaile izendatzea eta bere ordezko Luis María Esarte Valda.

2. Bake Epaileen 3/1995. erregelamenduaren 7. artikularekin bat, akordioa lehenengo instantziako eta instrukzioko epaileari bidaltzea, eta bat baino gehiago balira Dekanora bidaltzea.

8. OBRA BAIMENA: 309 ETA 310. LURZATIETAN.

Ikusita eskaturiko obrak ez daukala zer ikusirik aurretik eskaturiko beste obrarekin. Ikusita hasierako baimenean paratutakoa ez zela bete, udalburuak eskaera udal arkitektoei bidaltzearen alde nor dagoen galdetu du eta bozkatzera deitu du:

Alde 6
Abstentzio 1

Udalbatzak hurrengo **erabaki du:**

1.- Eskaera zerbitzu teknikoari (arkitektoei) bidaltzea, txakurtegiak izan dezakeen teilatu berriaren aleroak daukan altueraren inguruan aipamen berezia eginez.

2.- Akordioa interesatuari jakinaraztea.

9. ZIURTAGIRI ELEKTRONIKOAK ESKATZEKO UDALAREN ETA TOKI ADMINISTRAZIOKO SAILAREN ARTEKO HITZARMENA.

Aztertuta Nafar Gobernuaren eta FNMTren arteko hitzarmena, eta administrazio elektronikoen ezartzea dela eta, udalkideek sede elektronikoen eta zigilu elektronikoen inguruan mintzatu dira. Aukera dago, ziurtagiri elektronikoak dohainik ateratzeko, FNMT eta Nafar Gobernuaren arteko hitzarmenera atxikituta. Udalburuak bozkatzera deitu du:

Udalbatzak aho batez **erabaki du:**



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

- 1.- Atxikitzea FNMTko eta Nafar Gobernuaren arteko hitzarmenera.
- 2.- Idazkaria autorizatzea ziurtagiri elektronikoen eskaerak bideratzeko.
- 3.- Atxikipena eta autorizazioa Nafar Gobernura helaraztea atxikipena onartu dezaten.

10. KONTUHARTZAILE POSTUA.

Ikusita Doneztebe, Elgorriaga, Ituren eta Zubietako udalen Elkartzeak aurrera eramandako kontuhartzaile lanpostua betetzeko prozesua bete gabe gelditu zela, eta horregatik kanpoko enpresa bat kontratatzea onartu zela, leku bakoitzeko idazkaria kontuhartzaile izendatuz. Udalburuak bozkatzera deitu du:

Udalbatzak aho batez **erabaki du:**

- 1.- Zubietako bitarteko Kontuhartzaile Zubietako Idazkari den Beñat Ripodas Beroiz izendatzea.

11. HIRIGINTZA HITZARMENA 4. POLIGONOKO 172. ETA 179. LURZATIETAKO JABEEN ARTEAN.

Egoera aztertuta, Udalburuak gaia mahaiaren gainean uztea erabaki du eta idazkariari egoera ongi aztertzeko esan dio, formularik hoberena lortzeko.

12. GARBIKETA KONTRATAZIOA.

Kontratazioa bukatzen dela ikusita, kontrataziorako prozesua irekitzea beharrezkoa ikusi dute udalkideek. Oraingoan, Udal eraikinei (aurretikan kontratazioaren barnean zeudenei) frontoiko komuna gehitu zaio, eta hasierako prezioa 1600€an ezarri da. Udalburuak bozkatzera deitu du:

Udalbatzak aho batez **erabaki du:**

- 1.- Kontratazioa 1600€tan ateratzea.
- 2.- Kontratazioa Iragarrietako Oholean argitartzea.
- 3.- Proposamenak aurkezteko epea ematea uztailaren 12ra arte.

13. BESTETAKO POSTUAK.

Udalburuak azaldu du beste urteetan bezala, bestetan postua jarri nahi dutenei, erreziho bat emanen zaiela, eta bertan paratutakoa ordaindu beharko dutela. Hain zuzen



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

ere, besta guztiak egoteko 40 euro ordaindu beharko dute postu txikiek eta 50 euro handiek (tirapitxoia).

Udalbatzak aho batez **erabaki du**:

1.- Tarifak onartzea, postu txikiendako 40 euro eta handientzako 50 euro.

14. ESKAERAK.

14.1. Zubietako Frontoiaren eguna antolatzen ari den taldeak idatzi bat sartu zuen udalean. Horretan, frotoiaren egunean parte hartzeko gonbitea luzatzen zaio Udalari. Udalkide berriak daudenez, egunaren antolaketaren inguruan daukaten iritzia galdetzen diote berriro ere Udalbatzari. Eskuera aztertu ostean, Udalburuak bozkatzera deitu du:

Alde 5
Kontra 1
Abstentzio 1

Udalbatzak hurrengoa **erabaki du**:

1.- Festa antolatzeko eremu publikoa uztea.

2.- Udal ordezkari bezala, formalki, festan parte ez hartzea.

3.- Erabakia eskatzaileei jakinaraztea.

Pedro Hilario Santesteban Loyarte, kontrako bozka agertu duenak, bere bozka azaltzen du. Nahiz eta eremua uztearen eta formalki parte ez hartzearen alde dagoen, berak nahiko luke Udalak kontra dagoela aitortzea.

15. ALKATE EBAZPENAK.

Alkateak emandako ebazpenen berri eman du (48/2019. ebazpenetik 65/2019. ebazpenera), eta Udalbatza jakinaren gainean geditu da.

16. HERRIKO GAIEI BURUZKO INFORMAZIOA.

Udalburuak hurrengo gaiei buruz Udalbatza informatu du: Nafar Lansarek Jose Miguel Lasaga Tellechea eta Iñaki Txomin Perez Irigoyen kontratatzeke eman dituen diru laguntzak (Zuzendari Orokorraren 1769E/2019 eta 910E/2019. ebazpenak); Euskara diru launtzak, Zubietari onarturiko aurrekontuak (Euskarabideko Zuzendariaren 31E/2019. ebazpena); Gobernu Ordezkariaren gutuna, berdintasunaren aldeko jarduerak finantzatzeko eman ziren diru laguntzak justifikatzeko arauen inguruan; NILSaren kanon deklarazioa jaso dutenaren baieztapena; Iberdrolak herrian fakturaturiko zerbitzuen jakinarazpena eta tasen ordainketa maiatza eta ekainean; Zubietako loteen hasiera akta;



ZUBIETAKO UDALA

(Nafarroa)

31746

Ehiza 3. postuaren aldatzea; Donezteben ekainaren 18an ospaturiko Osasun Kontseiluko bilerara gonbidapena; Nafar Gobernuako Ingurugiroko Sailak Ignacio Juanicorena Indacoecheari aprobetxamendu particularra ateratzeko eman dion luzapena 2020eko uztailak 1 arte; Landa Garapen, Ingurugiro eta Toki Administrazioako sailera bidalitako oihan aprobetxamendu eskaerak- Fermín Santesteban Baleztena eta María Mercedes Santesteban Santesteban; Landa Garapen, Ingurugiro eta Toki Administrazioako sailera bidalitako oihan aprobetxamendu luzapen eskaerak- Ignacio Juanicorena Indacoechea eta José Luis Santesteban Elizalde; Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioako Sailak landatzeko emandako baimenak – Mendrasa, Ubegun, Lizaso eta Oritza lur eremuetan –; Landa Garapen, Ingurugiro eta Toki Administrazioako sailak emandako oihan aprobetxamendu eskaerak- María Mercedes Santesteban Santesteban; Landa Garapen, Ingurugiro eta Toki Administrazioako sailak abere ustiatzearen erregistroan emandako baje jakinarazpenak – Ana María Múgica Santesteban eta María Josefa Elizalde Michelena – Landa Garapen, Ingurugiro eta Toki Administrazioako sailak abere ustiatzearen erregistroan emandako alden jakinarazpenak – Iulen Burguete Álvarez, María Mercedes Santesteban Santesteban eta Asier Sistiaga Nieto –; Konfederazio Hidrografikoak, 4. poligonoko 78. lurzatian eraikitze eskaera jaso denaren jakinarazpena; Konfederazio Hidrográficoak Errotaren uraren aprobetxamendua neurtzeko sistema jartzeko behararen inguruan Udalarari egin dion errekerimendua.

Eta bertzerik ezean, 20:40ak direnean, alkate jaunak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.